


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak % 0,9 igo dira 2024ko bigarren hiruhilekoan

Urteko lehen sei hilabeteetako metatuan, salmentak % 1,2 gehitu dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorearen salmentak % 0,9 igo dira 2024ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegiaren ondorioak prezio konstanteetan atera ondoren. Salmenten urte arteko igoera, gasolindegia kontuan hartu gabe, % 1,5ekoa izan da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, salmenta-indizea % 0,2 igo da 2024ko bigarren hiruhilekoan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

2023ko bigarren hiruhilekoaren aldean, *Elikaduraren* sektoreko salmentak % 4,4 gehitu dira prezio finkoetan. *Gainerako produktueta*n, aldiz, salmenten urte arteko jaitiera % 1,7koa izan da 2024ko bigarren hiruhilekoan. Azkenik, *Automobilgintzarako erregaia*ren sektorean, salmentak aurreko urteko hiruhileko berean baino % 6,1 txikiagoak izan dira.

2024ko lehen hiruhilekoaren aldean, termino desestazionalizatueta eta prezio konstanteetan, *Elikaduraren* salmentak % 2,6 gehitu dira. *Gainerako produktueta*n eta *Automobilgintzarako erregai*an, berriz, salmentak hiruhileko artean % 0,9 eta % 4,7 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2024/II

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / At-4
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	0,9	0,2	1,2
Araba/Álava	0,1	-0,6	0,6
Bizkaia	0,8	0,4	1,0
Gipuzkoa	1,4	0,3	1,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	4,4	2,6	3,7
Elikagaien saltoki espezializatuak	5,0	1,9	2,6
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	4,2	2,5	4,1
Gainerako produktuak	-1,7	-0,9	-1,0
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	0,4	0,0	1,1
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	-2,6	-0,2	-5,2
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	-7,8	-1,9	-4,0
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	2,3	0,4	4,8
Automoziorako erregai	-6,1	-4,7	-2,7
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe			
	1,6	1,0	1,5
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	0,8	0,1	1,4

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2024ko Abuztuaren 8a

Iturria: Eustat. Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMIt)

Elikaduraren txikizkako merkataritzaren barruan, *Elikagaietan, edarietan eta tabakoan espezializatutako* merkataritzaren salmentak (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, etab.) % 5 igo dira 2023ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Txikizkako merkataritza *Ez-espezializatua, elikagaiak, edariak eta tabakoa nagusi* (supermerkatuak eta hipermerkatuak, batez ere), bestalde, % 4,2 hazi da urte arteko terminoetan.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzaren barruan, *Beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatutako* sektorearen salmentak (besteak beste, kirol-gaiak, jokoak edo jostailuak) % 7,8 murriztu dira aurreko urteko bigarren hiruhilekoaren aldean. *Etxeko ekipamenduan espezializatutako* sektorean (etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak barne), salmentak % 2,6 jaitsi dira urte artean.

Pertsonen ekipamenduan espezializatutako sektorean (arropa, oinetakoak, kosmetika-edo higiene-produktuak), aldiz, salmentak % 0,4 gehitu dira urte artean, eta *gainerako produktuetan nagusi den espezializatu gabeko* sektorean (korrespondentzia edo Internet) % 2,3.

Lurralde historikoen arabera, 2024ko bigarren hiruhilekoko salmenta-indizeak urte arteko hazkundera izan du lurralde historiko guztietan. Araban indizea % 0,1 igo da, Gipuzkoan % 1,4 eta, azkenik, Bizkaian % 0,8.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmenten bilakaera negatiboa izan da Araban, eta positiboa Bizkaian eta Gipuzkoan. Araban salmentek % 0,6 egin dute behera 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, % 0,3 eta % 0,4 egin dute gora, hurrenez hurren.

2024ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AE osoan, txikizkako merkataritzaren sektorean lan egiten duen pertsona kopurua % 0,8 gehitu da aurreko urteko bigarren hiruhilekoaren aldean. 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean, enplegua % 0,1 gehitu da.

2024ko LEHEN SEIHILEKOAREN BALANTZEA

Lehenengo sei hilabeteetako metatuak % 1,2ko igoera izan du salmentetan, eta igoera hori hiru lurraldeetan izan da: % 0,6 Araban, % 1,0 Bizkaian eta % 1,7 Gipuzkoan.

Elikaduran, salmenten metatuak % 3,7ko igoera izan du; *Gainerako produktuetan*, berriz, aldakuntza metatua negatiboa izan da, % 1,0koa; *Automobilgintzarako erregaiak* % 2,7ko jaitsiera izan du. *Gainerako produktuen* barruan, *Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako* sektorea eta *gainerako produktuetan nagusi den espezializatu gabeko* sektoreak (korrespondentzia edo Internet) bakarrik izan dituzte aldakuntza positiboak lehen sei hilekoan % 1,1 eta % 4,8, hurrenez hurren.

INFORMAZIO-OHARRA

Txikizkako merkataritzaren indizearen erreferentzia-urtea berritu da, eta 2021a izango da indizearen oinarri berria. Oinarri-alaketaren prozesuak metodologia sakonki eguneratzea ekarri du, eta, besteak beste, baliozkotzeko eta egozteko metodoak berrikusi dira eta aztertu beharreko biztanleria doitu da. Horrek guztiak indizearen serieak eguneratzea ekarri du.

Urte arteko aldakuntzak egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatu dira, eta hil arteko aldakuntzak urtarokotasunik gabeko serieetan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruileko honetako indizea laginaren % **96,02ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62